



1. Gogoetan

Badirudi teknologia berriek irakurketa ohiturak irauli egin behar dituztela euskarri desberdinak eskainiz, irakurketa modu desberdinak sortuz, eta guzti honek etengabeko berrien zurrunbiloan sartu gaitu.

Batetik, badira lehenengo ahotsak paperezko irakurketa eta pantailakoaren arteko onura eta eragozpenak aztertzen dituztenak, [Irakurlearen memoria](#) artikuluan bezala, arrazoi “erromantikoak” alde batera utzita.

Bestetik, eta hau urrunagotik dator, fikzio liburuen irakurketa eta informazio-ezagutza liburuen irakurketa desberdinak aztertzen ditu Ana Garralonek [Informazio liburuarentzat arrazoiak](#) artikuluan.

2. Egitasmoa martxan

Ikasturte baten bukaerarekin, hurrengo ikasturtean parte hartuko duten herri berriekin elkarrizketak hasiak dira jada. Krisi egoerak eragindako aurrekontu murrizketen gainetik, badirudi, oraindik ere badela BULARRETIK MINTZORA moduko egitasmoetan inbertitzeko ilusioa. Dena ondo bidean, laster aurkeztuko dugu parte hartzaile berriren bat!

Gogorarazi nahi dizuegu baita, www.bularretikmintzora.org web guneko nobedadeak, Galtzagorriko Facebook eta Twitter kontuen bitartez jaso ditzakezuela. Horretarako, Facebooken [Galtzagorri Elkartearen](#) orria atsegin duzula aukeratu, edo jarraitu [@galtzagorri_lit](#) Twitterren.

3. Hausnarketa gunea

HASIERAKO GALDEKIZUNEN erantzunak prozesatuta, orain txostenak idazten ari gara. Txostenok uda aurretik eskuragarri izango dira web guneko Egitasmoaren Ebaluazioa atalean, [Edukien Hedapena](#) azpiatalean.

Bestalde, laster jasoko ditugu ikastetxeetan banatu diren BUKAERAKO GALDEKIZUNAK, eta hauen lanketa ere uda baino lehen hasiko dugu, txostenak udazkenerako eskaini ahal izateko.

4. Ongi pasatzeko!

Teknologia berriekin hasi, eta bide berdinetik bukatuko dugu gaurkoan. Betiko ipuinak heldu dira gailu berrietara, eta ezin uka daiteke [emaitza erakargarriak](#) ematen ari direla, [tradizioaren xarma](#) galdu gabe.

Sarean murgildu eta adibide gehiagoren bila hasteko gonbitea besterik ez da hau!

Buletina hileroko e-postaz jaso ahal izateko izena eman gure web guneko [Guraso Berriak](#) atalean.

Informazio gehiago: www.bularretikmintzora.org eta www.galtzagorri.org